



Jauzi berri bat Ipar Euskal Herriko Prozesuan

**Ezker Abertzalearen
ekarpena**

AURKIBIDEA

Sar hitza	5
1. Egungo egoera sozial eta politikoa baliatu	6
1.1. Ipar Euskal Herria	6
1.2. Frantses Estatu	8
1.3. Mugimendu abertzalearen posizioa	8
2. Sekuentzia politiko berria Ipar Euskal Herrian	10
2.1. Estatus politikoaren aldaketa	10
2.2. Auto-eratzeta Herri gisa	12
2.3. Herri mobilizazio zabala, aldaketarako motorra	13
2.4. Mugimendu abertzalea egituratzeko fasea	14
2.5. Prozesuaren gidaritzaz oinarritzko proposamena	16
3. Ezker abertzalearen urratsak	18
3.1. Ezker abertzalearen baitako lanketa	18
3.2. Ezker abertzaleko kidegoaren erantzukizuna	18
3.3. Harreman politikoak	18
3.4. Ezker abertzalearen inbertsio politiko	18
3.5. Behin-behineko antolaketa	19

Sar hitza

Ezker abertzaleak gogoeta ideki zuen joan den urrian, batetik, iragan ziklo politikoaren azken hamarkadetako bilana egiteko eta bereziki, urteetako borrokari esker ideki den fase berriari begira jartzeko. Gertatu diren aldaketen sakontasunaz jabetu behar dugu, Ipar Euskal Herriaren egituratze prozesuan aitzinamendu garrantzitsuak egin baitira. Orain, egoera ezaugarritzen duten elementu nagusiak ongi azterturik, burujabetzaren bidean ondoko urteetan egituratze-boteretze ikuspegitik egin behar den jauzi berria marrazteko tenorea da.

Dokumentu hau mugimendu abertzalearen baitan ibilbide eta izaera propioa duen komunitatearen ekarpen gisa ulertu behar da, jakinik, aitzinera begirako urratsak herri perspektibatik eta mugimendu abertzalearen barnean beste sektore eta eragileekin batera partekaturik adostu eta eraman beharko ditugula.

Beraz, prozesu horri begira ezker abertzaleak egiten duen irismen luzeko ekarpena izan nahi du lehen proposamen ideki honek, ez haatik, gure ildo politikoa definitzeko ariketa. Finean, elkarrekin egin behar dugun biderako mugimendu abertzaleko sektore politiko baten inizatiba bati buruz ari gara, fase berriarekiko dugun anbizio mailaren araberako engaiamendua markatu eta eskatuko duena.

1. Egungo egoera sozial eta politikoa baliatu

Egoeraren azterketa sakon bat egin baino, egun gauden momentu sozial eta politikoaren ezaugarri nagusi batzuk mahai gaineratuko ditugu atal honetan. Ondoko urteetan egin nahi dugun jauzi politikorako eskaintzen dituzten aukerak eta zailtasunak agerian ematea izanik helburu nagusia.

1.1. Ipar Euskal Herria

1. Auto-eratzeko fase batean murgilduak gira. Lehenik, Ipar Euskal Herriak lortu duen lehen koadro instituzionalaren eraketa azpimarratu behar dugu. Burujabetza prozesu bat hiru etapetan garatzen den prozesu gisa irudika daiteke: auto-afirmazioa edo aldarrikapena; auto-eratzeko; eta autodeterminazioa. Auto-afirmazio fase batetik auto-eratzeko fase batera pasatzea ondorioztatzen dugu, Lapurdi, Baxenafarroa eta Xiberoan instituzionalizazio prozesu bat ideki delako bide horretan sakontzeko baldintzak biderkatuz. Aldiz, faktore ezberdinengatik Euskal Elkargoaren sortzeak ekarri duen etapan kudeaketa instituzionalean ataskatzeko arriskua kontuan hartu behar da. Prozesu horren hastapenean egonik, ezinbestekoa da ibilbide berri bat marraztu eta bultzatzea.
2. Ipar Euskal Herriari begirako identifikazio mailaren azkartzea. Euskal Elkargoaren existentziak jendartean oraino ez du eragin nabarmenik izan. Aldiz, urteen poderioz, Ipar Euskal Herriari begirako identifikazio maila indartuko dela pentsa genezake. Prozesuan aitzinatzen dugun heinean, geroz eta garrantzia gehiago duten politika publikoak eta beste hainbat egitura Ipar Euskal Herriaren mailan kokatuko dira. Hala gertatzekotan, jendarte mailan Euskal Herriarekiko identifikazio maila indartu beharko litzateke, erabakiak bertan hartzearen ideia azkartuz. Bilakaera hori mugimendu abertzalearen mesedetan eman beharko litzateke gainera, beste sektore politikoekin konparaturik, Euskal Herria delako gure proiekturako joko zelaia eta ardatza. Halere, lurraldearekiko atxikimendua hedatzen ari da, gero eta gehiago Euskal Herria bilakatzen ari delako jarduteko joko zelaia. Erraterako, unibertsitatearen, berrikuntzaren eta enpresen eremuan badira mugaz gaindiko esparrua 'arautzen' ari diren eragileak (Estia, CCI, EHU...). Aldiz, esparru horretan ezkerreko mugimendu abertzaleak ez du oraino indarrak artikulatzeko lan bat egin eta adi segitu behar dira gertatzen diren mugimenduei ikuspegi neoliberalak gaina har ez dezan. Lurraldearekiko identifikazio hori oinarri/aukera izan daiteke herri ikuspegitik auzolanean aritzeko eta berrikuntza balore berri batzuetan kokatzeko.
3. Borroka armatuaren bukaerak aldaketa inportantea eragin du. Euskal Herriko egoera astinduz, eragile politiko guzien posizioak mugiaraziz eta jokaleku eta eztabaida berriak idekiz. Trantsizio egoera batean gira, ziklo bat heste bidean jarririk, berri bat idekitzen ari garen bitartean. Egin diren urratsak askapen prozesuaren etapa berri bati buruzkoak izan dira, baina hertsiki lotuak dira gatazkaren ondorioen konponbide prozesuan herri ikuspegitik egin direnekin. Beste etapa batera pasatzeko posizioan gaudela esan dezakegu: presoan etxeratze fasean, hain zuzen. Horrek eztabaida parametro politiko berrietan kokatu beharko du, mugimendu abertzale osoaren eta baita ezker abertzalearen energia guziak prozesu politikora begira jartzeko.

4. Euskal Herria, elkarrekin aritzeko baldintza hobeak, baina zailtasun berriak. Azken urteetan ezkerreko mugimendu abertzalea lurralde osoan azkartu ez ezik, estrategia konfederalaren baitan eremu ezberdinetan gehiengo berriak osatzeko urratsak egin dira, oso bereziki Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan. Aldiz, nazio ikuspegian aritzeko ezkerreko independentismoak egin behar duenetik harago, prozesu politiko-instituzional baten ikuspegitik arazo berriak sortzen dira, nolabaiteko urruntze bat emanez lurraldeen artean. Argiki erran behar da: Ipar Euskal Herrian prozesu politiko partekatu bat martxan dago, Hego Euskal Herrian egun ez dagoena. Horrek galdezkatzen digu Euskal Herriari begirako zer motako prozesua eraiki behar den, lurraldeen arteko harremanak nola garatuko diren eta horren baitan, Ipar Euskal Herriak zer ekarpen egiten ahalko duen.
5. Mugimendu abertzaleak jendartearen eragiletza indartu da. Ondorio gisa, gure emaitza elektoralen eta jendartearen babesean hobetze nabarmena ekarri du horrek. Duela zenbait urte abertzaleonak ziren aldarrikapenak beste eragileen agendan kokatzea lortu da posizioak mugiaraziz, bazterretik zentralitatera iragatea lortuz eta ezkerreko abertzaletasuna Ipar Euskal Herriko erreferente politiko nagusietariko bilakaraziz. Horren erakusgarri da hainbat herriko etxe gure eskuetan ukaitea eta Euskal Elkargoaren lehendakaritza irabazteko hautagai bat aurkezteko puntuan egon izana. Aitzitik, oraindik orain fase berria indar guziz bultzatzeko mugimendua ez dago aski prestaturik eta hori da ondoko hilabeteetan egitea lortu behar duguna: ibilbide berri baterako eskaintza politiko eta organizatiboa. Horrekin batera, garrantzitsua da herri boterea lortzeko estrategia ongi definitzea, adostea eta zaintzea. Elektoraliki indartzeak boterea hauteskunde estrategiarekin partekatze arriskua ekar lezake. Aldiz, botere hartze estrategia integrala izateari arreta jartzea inportantea izanen da, besteak beste, herri dinamika eta mobilizazioak ekarri baikaituzte gaurko baldintzak izatera.
6. Presio demografikoaren emendatzea. Azken urteetan bere populazioaren emendatze azkar bat ezagutu du Ipar Euskal Herriak. Maila batez gure lurraldeak duen erakargarritasuna dinamismo sozial eta ekonomiko baten bultzatzailea da. Baina ondoko urteetan apalduko ez den jario demografikoa hainbat arazoren iturri da ere: arazo politikoa, kanpotik etorritakoak frantsesak baitira gehienak, Frantses Estatuaren giro eta kultura politikoa konektatuak; lurralde eta sozial ikuspegitik ere arazoak ekartzen ditu, etxebizitza eta luraren problematika horien artean, baita euskararen berreskurapen prozesuan ere. Ez soilik, baina jario demografikoa batez ere Baiona-Angelu-Biarritze hirigunean kokaturik, mugimendu abertzaleak ondoko urteetan estrategia sozial, politiko eta instituzional egoki bat plantan ematen asmatu beharko du desafio horri erantzuteko.
7. Osasun krisia, soziala eta ekonomikoa. Duela urtebetetik mundua eta jakina, Euskal Herria astintzen duen Covid-19ari loturiko osasun krisiak errealitate berri bat ekarri du gurera. Arazo honek alimaleko garrantzia hartu du, jendartearen lehentasuneko gaia bilakatuz. Baina horretaz harago, krisi sozial, ekonomiko, ekologiko eta politiko sakonagoetarako iturri izaten ari da, geroari begira oraindik orain izanen dituen eraginak neurtzea zaila delarik. Ez dezagun ahaztu Ipar Euskal Herrian prekaritate sozialaren maila handia dela. Sistema neoliberalak egoera hau aspektu ezberdinetan baliatu nahi duen honetan, Euskal Herriaren ikuspegitik idekitzen zaizkigun aukerei begiratu behar diegu: jendartearen arazo sozial, ekonomiko eta sanitarioei bertatik bertara erantzutea, aterabideak eskainiz edo hauek plantan emateko botere maila berriak debatearen erdira ekarriz. Aldiz, ezkerreko abertzaletasuna posizio sendo bat hartzeko gai ez bada, gerta liteke problematika hauen -eta erraterako, baita ekologismoa edo feminismoarekin ere- inguruko mugimenduak Euskal Herri mailatik deslotzea eta erreferentziak Frantses Estatuan kokatzea.

8. Arazo ekologikoaren larriagotzea. Aldaketa klimatikoa egoera eta ondoko urteak ezaugarritzen dituen beste ardatz inportante bat da, zeinak mundua ez ezik, gure lurraldearen geroa ere zuzenean markatzen duen. Kasu honetan ere, ondoko etapan errealitate horri Euskal Herritik erantzun propioa eman beharko zaio, bertan jadaneko dauden mugimendu eta alternatibak biderkatuz, baina egituratze prozesuan eraiki nahi dugun herria eraikitzeo perspektiban kokatuz.

1.2. Frantses Estatua

9. Estatuaren antolaketa eta nazioetako auziak. Euskal Herrian garatzen ari den prozesuari loturik, Frantses Estatuak zapalduko nazioetan ematen ari diren prozesuak hurbiletik segitu behar dira. Estatus politikoaren ikuspegitik, Kanakyak autodeterminazio eskubidea irabazia du; Polinesiak ez oraindik, baina deskolonizatu beharreko Herrien zerrendan kokatua da Nazio Batuetan; Korsikako Lurralde Kolektibitatearen kasuan han adostua den ondoko urratsa autonomiarena da; Alsazian, estatus bereziko Lurralde Kolektibitate berri bat indarrean jarri dute, Alsaziako departamenduak bateratu dituen Europar Kolektibitate; Britainian mugimenduak azkartzen ari dira lurralde historikoa batzeko erreferenduma galdeginez. Lerro hauetan prozesu horiek sakon aztertzeo xedea izan gabe, errealitate horiek agerian ematen dute Ipar Euskal Herritik Frantses Estatuaren baitako nazioekin batera harreman eta elkarlan esparru berriak idekitzeo aukera eta beharra.
10. Frantses Estatua zentralizazio joeran. Izan ere, aitzineko puntuan aipatu egoerak bete-betean talka egiten du Frantses Estatuaren izaera zentralista eta jakobinoarekin. Krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren testuinguruan, gainera, erabakien zentralizazio eta bertikaltasunerako tendentzia emendatzen ari da. Horrek eztabaida eta maila bateko talka sortzen du tokiko errealitateei erantzuna emateko garaian. Egun, Ipar Euskal Herriak aski konpetentziarik izan gabe, joera horren ondorioak pairatzen ditu bete-betean, baina gisa berean, konfrontazio parametro berriak sortzeo, erabakiak bertan hartzeo buruzko eztabaida azkartzeo parada idekitzen du.
11. Krisi politikoa. Estatuaren eta oro har, krisi globalagoari loturik, badira urteak ezkerretik eskuineraino familia politiko ezberdinak krisi batean daudela, batzuetan zein besteetan zatiketak sortu direlarik. Jendartean ez atxikimendu maila emendatu da bai Estatuak eskaintzen zuen "segurtasun-identitatearekiko", bai horren eramaile ziren sektore politikoeekiko. Horrek, erreakzio atzerakoi eta kontserbadoreak eragin ditzake eta arretaz segitu behar da frantses nazionalismoaren zein eskuin muturraren azkartzea, gure herriko prozesuan izaten ahal duen eragin kaltegarriatik. Aldiz, inportantea deritzogu, usu egin ohi den gisan Frantses Estatuko ezker-eskuin indar harremanak Euskal Herrikoekin ez berdintzeo. Hau elementu garrantzitsua da ondoko etapa gainditzeko Ipar Euskal Herrian garatu behar diren harreman eta adostasun berriei begira.

1.3. Mugimendu abertzalearen posizioa

12. Mugimendu abertzalea inflexio une batean. Bilanaren ondorioetan azpimarratu genuenez, Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea bidegurutze batera ailegatu da, non jauzi bat emateko atarian gauden. Urrats hori oraino ez da emana. Azken urteetan egin borrokari esker zentralitatean kokatu ditu hainbat gai, bere eragiletza azkartuz ber denboran. Erran dugunez, Ipar Euskal Herrian auto-afirmazio edo aldarrikapen egoera batetik auto-eratzeko etapa batera pasa gira eta ondoko eta-

paren erronka politikoa irabaziko badugu, horri egokituriko artikulazio eta eskaintza integral bat gauzatzea lortu beharko da. Hau da, oraindik orain norabide eta jardun bateratuan ez dauden indarren arteko bidea eraiki eta Ipar Euskal Herriaren egituratzeko gai nagusietan estrategia komun gaurkotu bat eraikitzea.

13. Tresna politiko-instituzionala gaurkotzearen beharra. Egungo atakan abertzaletasuna erdigunean baldin badago, oraindik orain EH Bai ez da bilakatu ezkerreko abertzale guzien etxea. Horri gehitu behar zaio, geroz eta ordezkartza instituzional handiagoarekin, eta auto-eratzeko prozesu baten parean, tresna politiko-instituzional gisa ahula dela egun. Lorpen politikoen eta eskaintza zein antolaketaren arteko aldea ez badugu ttipitzen, poderea kudeatu eta estatus politiko berri batera iragateko gaitasuna duen indarra bilakatzea oso zaila izanen da. Horrendako, ezkerreko abertzale guzien tresna izateko eta eskaintza politiko-instituzional berri baten egiteko EH Bai gaurkotzea funtsezko lehentasuna dugu.
14. Nazio dimentsioaren indarra. Krisi egoeraren indartzearekin batera, Frantses Estatu jakobinoak gure jendarteari egin diezaiokeen eskaintza politikoa erakargarritasuna galdu du. Hortaz, Ipar Euskal Herriatik ikusita, Euskal Herriko eskalak sinesgarritasun maila handiagoa izan dezake, arazo edo desafio berriei erantzuteko esparru geografiko eta politiko gisa. Horrekin batera, beste mugimendu politikoen estatu aparatuak urtze, desegite edo zatitze prozesu batean murgilduak direlarik, ezkerreko abertzaletasunaren perspektiba zein antolaketa nazionalak beste proiektuek geroari begira eskas duten garapenerako heldulekua ekar lezake.
15. Gure proiektuaren sinesgarritasuna. Jasaiten dugun krisi ekologiko eta sozialak zailtasunak eragin diezazkiguke eguneroko biziaren "salbatzearen" arrangurak euskal identitate nazionalaren arazoari begirako jarrera baldintzatuz. Baina aldi berean, krisi sozial, ekonomiko eta ekologikoaren arazoei eskaintza oso batekin helduz gero, ezkerreko abertzaletasuna indartu daiteke, hainbat sektorerentzat alternatiba sinesgarri gisa agertuz. Izan ere, gure proiektuaren muinean dauden kontzeptuek globalizazio neoliberalaren krisiari buru egiteko baliagarria izan daiteken paradigma berri baten ezaugarriak marrazten dituzte: erresilientzia edota burujabetza. Hots, indartzen ari den krisiaren testuinguruan, hegemoniaren borrokan posizio are sendoagoa irabazteko baldintzetan egon gaitezke.
16. Ezker abertzalearen mugak. Azken hamarkadek eta bereziki, hoguei urteetako bilakaerak ezker abertzalea gaurko egunetara "desgastaturik" ekarrarazi dute. Dударik gabe, fase berrian egin duen berkokapenarekin eta inizatibarekin bere posizio politikoa indartu da, baina errepresioak, ilegalizazio prozesuak eta baita azken urteetako prozesuak ezagutu duen bizkortzeak ere gure mugak agerian eman dituzte. Ezker abertzalea osatzen dugun komunitatea -esparruak eta kidegoa- etapa politiko berria indar guziz bultzatzeko prestatu behar dugu.
 - Guztiarekin, burujabetza prozesuan aitzinamendu garrantzitsuak egiteko parada ematen duen egoeran gaudela deritzogu, bere aukerekin, indarguneekin, arrisku eta mehatxuekin. Afera ez da aldagai baikorrak edo ezkorrak nagusi ote diren, egoera ezaugarritzen duten faktore nagusi horiek fase berri baterako behar bezala baliatzen ditugun baizik.

2. Sekuentzia politiko berria ipar euskal herrian

Lehenik eta behin, testuinguruaren azterketari tiraka, azpimarratu nahi dugu proposaturiko apustu politikoak hipotesi ezberdinek aurreikusten joatea eskatuko duela. Egoera aldakorraren analisi dinamiko eta horren arabera egokipenak ere beharko ditu denboran zehar.

Aitzinetik erran dugunez, Ipar Euskal Herria auto-eratzeko prozesu batean murgildurik dago eta orain zeharkatu beharko litzatekeen etapa berriaren nondik norakoak marrazteko ahalegina egin behar dugu. Fase politiko hori nola ezaugarritzen dugun, zer helburu orokor ezartzen dizkiogun, zer motako prozesua eraman nahi dugun edota tresna nagusiak horren guzian mesedetan nola berkoatzen ditugun gogoetatuko dugu.

Argiki berresten dugu, gure askapen prozesua nazionala eta soziala dela. Txanpon bereko bi aldeak, hain zuzen, eta beraz, bata bestea gabe ezinezkoa dela ulertzea gure borroka bidea. Euskal Herria nazio identitatearen ikuspegitik arriskuan den Herria da eta dudarik gabe, gure identitatea azkartuko duten urratsak behar dira marraztu. Aldiz, konbentzituak gira gure nazio askapen borrokaren epika berria neoliberalismoaren krisiaren aitzinean, jendarte justu eta solidario bat eraikitzearen beharrari estuki lotu behar dela. Prozesua elkar osatzen duten bi alde horiekin gorpuztu behar da.

2.1. Estatus politikoaren aldaketa

17. Lurralde Kolektibitatearen antzerkia. Lehenik eta behin, Ipar Euskal Herria, beste aitortza estatus batera eraman nahi dugu. Argiki, Euskal Elkargoaren kudeaketa soiletik harago, egungo estatus politikoa gaindituko duen beste koadro instituzionala lortu nahi dugu: Lurralde Kolektibitatea. Hori da etapa honen estatus aldaketarako ezartzen dugun helburua. Horrek ez du erran nahi Euskal Elkargoan poderearen hartzea eman nahi dugun estatus aldaketari begira helduleku inportantea ez denik, areago, bada. Fase politiko berri bati buruz ari garelarik, epe erdi-luzeko ibilbide bati buruz ari gira, seguruena hamarkada oso bat edo gehiago hartzen dituen. Proposatzen dugun eskema arnas luzekoa da, epe labur-erdiko planteamenduak eta erronkak ezaugarritu beharko dituen. Horregatik, auto-eratzeko fase batean murgildurik gaudela ondorioztatzen badugu ere, luzera begira estatus politikoaren aldaketa irabazteko aldarrikapena lehen planoan ezartzea garrantzitsua izanen da, tartean herria prozesu horren aktibo izateko. Urratsez urrats herria irabazi behar da.
18. Arrazoiaren sakonduz. Auto-eratzeko fase batetik autodeterminaziora doan ibilbidean, ikuspegi juridiko-politiko batetik egoia den estatus mota "kolektibitate bereziaren" estatusa da. Izendapen horren azpian mota askotako instituzioak sartzen dira. Inportanteena "bereziaren" kontzeptua da, estatus "bereziaren" kalifikazio orokorra lortuz gero, horren pean gauza daitezken koadro instituzionalak mota askotarikoak izan daitezke. Ipar Euskal Herrian eragile sozial, ekonomiko eta politikoen artean adostu zen estatus bereziko Lurralde Kolektibitatearen eskakizuna egokia iduritzen zaigu aitortza instituzionalaren ondoko etapa marrazteko orduan.

19. Baldintza demokratikoen aldarrikapena eta erabakitzeko eskubidea ardatz. Euskal Elkargoaren ibilmoldea baldintza demokratiko eskasetan oinarritua dela oroitarazi behar da, herritarrek ez baitituzte haien ordezkariak zuzenean hautatzen. Hain zuzen, Euskal Elkargoko ordezkariak herritarren bozka zuzenaren bitartez hautatuak balira, horrek juridikoki estatus aldaketa eraginen luke, Euskal Elkargoa bera Lurralde Kolektibitate bilakatuz. Horrekin batera, erabakitzeko eskubidea agertoki politikoaren erdian kokatuz, ondoko printzipioa mahaigaineratuko litzateke: herritarrek berek erabaki beharko lukete Ipar Euskal Herriaren biharko koadro instituzionala nolakoa izan beharko den.
20. Lurraldetasunaren auziaren garrantzia. Ipar Euskal Herri mailako dimentsioa eta nazio mailakoa. Lehenari dagokionean, gogoratu behar da Euskal Elkargoaren erronka nagusia kostaldeko eta barnekaldeko eremuen osagarritasuna bermatzea dela. Biharko zerumuga estatus berezia lortzean finkatzen badugu, zuzeneko bozkaren erdiestea honen lortzeko ardatz nagusi gisa kokatuz, estrategia honek eremu geografikoen arteko desorekari begirako gogoeta sakon bat egitera behartuko gaitu. Lurralde Kolektibitatearen etapara pasatzeak lurraldeen (edo eremuen arteko) itun demokratiko baten adostea galdegingo du. Bestetik, lurraldetasunaren auziaren dimentsio nazionalari dagokionez, Alsazian abian ezarria izan den estatus bereziko Lurralde Kolektibitate berria erreferentzia izan daiteke, europar zuzenbideak Hego Euskal Herriarekin harremanak azkartzeko aukerak eskainiko bailizkiguke.

2.2. Auto-eratzea Herri gisa

21. Ipar Euskal Herriaren egituratzea xede. Estatus politikoaren aldaketa bidea ez da prozesu instituzional soila, horrela planteatuz gero, nekez gauzatuko baita edo bestela, aukerak baino, mugak agerraraziko baititu. Ipar Euskal Herriak ahalik eta botere edo ahalmen maila handiena izatea nahi badugu, egituratze prozesu integral gisa ezaugarritu behar dugu. Horrek erran nahi du ondoko urteetan herri ikuspegitik egitura sozio-ekonomiko berriak borrokatu beharko direla; berdin trantsizio ekologikoaren gauzapenean; emazteen eskubideak bermatzeko feminismoaren sendotzean; euskararen estatusari eta hizkuntza politikarako tresnei dagokienez; hezkuntzaren esparruan edota mugaz gaindiko harremanetan. Finean, estatus aldaketa mamitu nahi dugu, aldaketa hori ahalik eta sakonena eta integralena izan dadin.
22. Herri Agenda berritua. Halere, ondoko urteetan zentralitatean jarri beharko diren gaiak, aldarrikapenak eta urratsak zein diren argiki definitu beharko da. Azken urteetan bereziki Euskal Elkargoaren sorreran eta gatazkaren ondorioen konponbidean lortu da Herri ikuspegiko bide adostua eramatea. Lehenari dagokionez, etapa hori idekitzea baitezpadako eginbeharra zelako, eta bigarrenaren kasuan, ziklo bat hesteko bidean jarri eta beste bat idekitzeko parioa egitetik harago, guretzat funtsezkoa delako euskal presoen auziari ahalik eta aterabide azkarrena ematea. Dudarik gabe, konponbide prozesuaren erresoluzio fasea izan behar da honakoa, estatus aldaketaren prozesuan zehar lortu beharko duguna eta lehentasun osoa izaten segitzen duena. Oro har, gure apustua izanen da Herri Agenda integral berritu bat eraikitzea eta horren inguruan ahalik eta sektore sozial, sindikal, politiko eta instituzional gehienengaiamendua lortzea, bide batez bestelako sasi-bideei atea hesteko.

Ezker abertzalearen iritziz, aldarrikapen nagusi hauek izan daitezke herri gisako indarrak batuz bultzatzekoak:

- Estatus aldaketa, Lurralde kolektibitatea.
- Gatazkaren ondorioen konponbidea.
- Euskararen ofizialtasuna.
- Egitura sozio-ekonomiko propioak.

Mahai gainean gai nagusi hauek jartzeak ez du baztertu behar bestelako aldarrikapenak jasotzea. Are, horien baitan zer irizpide eta sakontze egin behar den aztertu beharko litzateke. Definizio prozesu hori manera partekatuan landu beharko dugu eta guzien ekarpenekin joan beharko gira eraikitzen agenda berri hori. Halaber, Ipar Euskal Herriko prozesua nazio ikuspegi txertatzeari garrantzia emateko ekarpena egin beharko dugu.

23. Prozesu ahalik eta transbertsalena. Horrek guziak prozesu politikoa norekin egin nahi dugun zehaztera eraman behar gaitu. Gaur gaurkoz, Ipar Euskal Herrian espektro politikoari dagokionez, zentro-eskuinak du nagusitasun elektoral-instituzionala. Jakin badakigu, Euskal Herriak ahalmen gehiago izatearen kontrako sektoreak badirela zentro-eskuinean (ezkerrean beza-la), baina azken urteetan “Euskal Herriaren alde” kokatu diren sektoreek oinarrizko aldarrikapen batzuen garapenean paper garrantzitsu bat bete dute. Panorama horretan, indarturik ageri bada ere, oraindik orain mugimendu abertzalea ez dago indar hegemonikoaren posizioan eta momentuko, ezkerreko indarrekin, proposatzen ari garen Herri estrategia bultzatzeko gehiago zabal bat osatzeko baldintzak ez ditugu sortuak. Herri gisako oinarrizko urratsak egitera beharturik gaudenez, gaurko indar harremanak kontuan hartuz, ezin gara Frantses Estatuan ematen den ezker-eskuin parametro hutsean oinarritu. Euskal Herriak ahalmen gehiago izatearen aldeko eta kontrakoen arteko zatiketa politikoaren parametroan ere kokatu behar ditugu gure ondorengo urratsak, hain zuzen ere, Herri Agenda batean oinarrizkoak izan behar diren aldarrikapen-gaien inguruan ahalik eta aliantza transbertsalenak eraikitzeko, gaur arte lortu izan direnak baino are zabalagoak izateko ambizioarekin.
- Bide berean, jendarte zibilak herri prozesu adostu horren bultzadan eta garapenean funtsezko aktore izan behar du. Zentzu horretan, egun Ipar Euskal Herriko eragile garrantzitsuenak biltzen dituen IEHko Garapen Kontseilua hauteskiekin batera lurraldearen gobernantza aitzina eramateko espazio klabea dela deritzogu. Bere osaketak ez ezik, eta mahai gainean dituen debate zein proiektuez harago, prozesuaren herri izaera bermatzeko funtzio klabea betetzen du. Uste dugu Ipar Euskal Herriak dituen desafio handiei buru egiteko elkarrizketa eta adostasun soziala espazio horretatik heldu dela.
 - Oro har, Herri estrategia garatzeak eskatuko duen etengabeko arreta azpimarratzen dugu. Azken urteetan Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoan eraman den prozesu politikoak hurrengo urteetan izan behar duen jauzia ez dago bermaturik. Testuinguru politikoa aldarazten duten aldagai ezberdinek (Frantses Estatuaren egoerak eta erasoak, Euskal Herriko indar harremanen aldaketak, bestelako interes politikoek, mugimendu abertzalearen gaitasunak...) herri prozesua baldintzatuko dute. Beraz, horrek erran nahi du ahalegin oso eta iraunkor bat egin beharko dela idekitako bidean sakontzeko eta Ipar Euskal Herriaren etorkizuna bide horretan aitzinera eramateko. Ezker abertzaleak bere esku dagoena egingen du apustu horretan.

24. Adostasuna Euskal Herrian, konfrontazioa Estatuarekin. Frantses Estatuaren aldetik zentralizazio joera, ukazio eta erasoek segitu ez ezik, egitura berrien aitortzarako itxitasuna aurreikusgarria den agertokia da. Guk gure prozesua Euskal Herritik Euskal Herrira egin nahi dugu, gehiengo zabal baten bidez aitzinamendu estrukturalak emateko. Alta, jakina da egituren aldaketa emateko frantziar Estatuarekin negoziaketa prozesu bat beharrezkoa izanen dela. Horregatik, Euskal Herriko prozesu adostua presiozko prozesua izan behar da Estatuaren aitzinean. Horrek erakusten du konfrontazioaren xedea non ezarri beharko dugun. Ideia edo proiektu politikoaren arteko konfrontazioa zilegi bezain beharrezkoa da eta zentzu horretan, EH Baik jauzi bat eman beharko du Ipar Euskal Herriarentzat duen proiektu politikoaren inguruan ezkerreko abertzaletasunaren baitan indarrak biltzen hegemonia politikoaren lehian aitzinamenduak egiteko. Helburu hori, aliantzetatik baino, bereziki egunerokoan herriz herriko zein sektorekako lanari eta eraman beharreko dinamika politiko-instituzionalari esker lortuko dugu denboran. Honek ez ditu zalantzan ezarri behar herri prozesuaren ikuspegitik eraikitzen ari garen eta eraiki beharreko adostasun zabalak.
25. Frantses Estatuaren baitako lankidetzak: Frantses Estatuan ematen ari diren mugimendu batzuk oso interesgarriak dira -duela urteak basamortu bat zen- eta lanerako bide hori baliatu behar da. Lehenik, Estaturik gabeko herrietan edota lurraldeetan garatzen ari diren prozesuak -Bretainia, Korsika, Alsazia...- herri ikuspegitik bertako eragileekin elkarlana lantzea ezinbestekoa izanen da. Helburua Estatuaren aitzinean gai ezberdinen inguruan -estatus politikoa, hizkuntza...- indar harreman sendoago bat artikulatzea litzateke, aldaketa politikoak eta burujabetza prozesuak azkartzeko. Bestetik, gatazka-aren konponbide prozesuarekiko ahalik eta sustengu zabalena lantzen segitzea funtsezkoa izanen da Estatu mugiarazteko bidean. Hirugarrenik, frantziar lurraldean borroka eta dinamika sozialak garatzen ari den ezker eraldatzailearen aktoreekin elkarlana sakontzea beharrezkoa zaigu alternatiba berrien inguruan metaketa eta trukaketa bermatzeko.

2.3. Herri mobilizazio zabala, aldaketarako motorra

26. Herri mobilizazioa, fase berriaren ezaugarriekin bat. Dударik gabe, estatus aldaketa egiteko prozesu politiko-instituzionalak pisu handia hartu behar du, egun Ipar Euskal Herria subjektu politiko gisa hartzen duen instituzio propioetik berri batera jauzi egin behar baita. Aldiz, prozesu horren erritmoa eraginkorra izanen da herri mobilizazioaren heina anbizio politiko horren parekoa baldin bada. Fase honetan, gakoak diren gaien inguruko mobilizazio dinamikak (estatus politikoa, konponbidea, euskara, aldaketa sozial-ekonomiko-ekologikoa, gazteen aldarrikapenak...) ahalik eta zabalena eta indartsuenak izatea lortu behar dugu, horren eramaile diren herri mugimenduak ere gisa horretan ezaugarritzen ahaleginduz. Helburua agenda markatzea izan behar da. Alde batetik, jendartearen baitan gai hegemoniko bihurtzeko, baina bestetik, arlo politiko-instituzionalean ere indar harremanetan eraginez aldaketa prozesuak bizkortzeko. Borroka moldeei dagokionez, Frantses Estatuaren ukazioa ikusirik, desobedientzia zibilak paper garrantzitsu bat bete beharko du prozesuan, azken urteetan hainbat mementotan bete izan duen gisan. Funtsezkoa da, haatik, desobedientzia zibilaren rola eta izaerak fase politikoak dituen ezaugarriekin bat egitea. Hala nola, estrategia/dinamika integral baten baitan helburu politikoetan aitzinatzerara begira kokatua, ahalik eta parte hartzaileena izatea, jendartearen onarpen zabala ukaitea edota herri gisako bidea elikatze eraginkorra izatea.

27. Eraikuntza dinamikekiko apustua. Azken hamarkadetan Ipar Euskal Herriaren egituraketan funtsezkoak izan diren herri proiektu ezberdinak gauzatu dira, gehienak problematika edo gai konkretuei loturik, baina Euskal Herriaren biziraupen eta garapenerako funtsezko ekarpena eginez. Gaur, proiektu hauetariko ainitz arrunt egonkortuak dira, baina batzuetan, berritze azkar baten beharrean. Fase berri honetan, bi erronka daudela deritzogu: batetik, helburu orokorren arabera, egun abian diren hainbat proiektutan jauzi posibleak ematea etapa berrian berkokatuz; eta bestetik, eraikuntza dinamika berriak abian jartzea. Problematika eta gai ezberdinen inguruan elkarlanetik kontra-botere egiturak sortzea funtsezkoa da. Iraganean bezala, helburua izan behar da gaur legez plantan eman ezin dena edo mugak dituena, bihar onartua eta normalizatua izatea. Gisa horretan, arazo/gai konkretuei aterabideak emateaz gain, Euskal Herriaren egituratzean eta eraikuntzan aitzinamenduak egiten ditugu. Uste dugu, mugimendu abertzalean manera partekatu batean gogoetatu beharko direla berritze horren lehentasun eta erronka nagusiak, guztionak bilaka daitezten.
28. Mobilizazioaren eta estatus berri baten aldarrikapenaren arteko osagarritasuna. Herri borrokak eta herrigintzak aitortza instituzionalaren aldeko prozesua elikatu beharko dute halaberrez. Ideia nagusi horrek itzelezko garrantzia du. Aitzineko sekuentzian izaera sektoriala izan duten dinamika batzuk (euskara, laborantza) aitortza instituzionalaren norabidea astindu dute eta prozesu orokorra elikatu. Ondoko faserako baliagarriak diren oinarritzko bi printzipio atxiki behar ditugu: lehenena, borroka sektorial edo aldarrikapen lerro bakoitzak egiturazko soluzio baten beharra astintzearen garrantzia; bigarrena, borroka ezberdinen topagune komun bat izatea, haien arteko osagarritasun esparru bat eskainiz aitortza politikoaren gerizpean.
29. Agenda soziala, gehiengo berrien bila. Edozein gisaz, pairatzen dugun krisi sanitario, sozial eta ekonomiaren aitzinean, politika neoliberaleri aurre egitea eta bereziki Ipar Euskal Herriaren egitura sozio-ekonomikoen aldarrikapena zentralitatean jartzeari biziki inportantea izanen da. Aldarrikapen horiek herri ikuspegi batetik oinarritzkoak izatetik harago, euskal herritarren eskubide sozial eta laboralak bermatzeko xedez kokaturik etorri behar dira. Hala, esparru sozial eta sindikalaren begiradak hein handian Paris edo Pauen jarririk baldin badira, estrategia sozial-sindikal azkar bat beharko dugu indar harremanak Euskal Herriaren beharretara beha jartzeko eta estatus aldatetari behar den bultzada emateko.

2.4. Mugimendu abertzalea egituratzeko fasea

30. Anbizio politikoaren garrantzia. Gauden egoerak anbizio handiko erronka erakusten digu, zailtasunez eta oztupoz beteak. Egun, mugimendu abertzalearen indarrak aski barreiatuak dira, baita gogoeta mailan ere. Iraganeko desadostasunak edota bakoitzak bere esparrua atxikitzeke egon daitezkeen tendentziak gibelean utzi eta anbizio kolektibo baterako parioa egin behar dela uste dugu. Egin eta egitura zein oinarrietan kutsatu. Ipar Euskal Herriko panoraman sektore klabea garelara jabetu eta horren arabera jokatzeko. Mugimendu abertzalearen anbizio maila gorenekoa izan beharko da, gehiengoak artikulatzeko prozesuan zehar, bai herri mobilizazio eta dinamiketan, bai maila instituzionalean, tartean Euskal Elkargoan.
31. Estrategia eta norabide partekatua. Behin baino gehiagotan aipatu dugunez, mugimendu abertzalea osatzen dugun sektore ezberdinen artean gogoeta partekatu eta norabide komun bat adostu behar dugu hurrengo denboretan. Familia politikoez ari gara, baita sektore ezberdinetan (euskaragintza, sindikalgintza, hautetsi, ekologismoa, laborantza...) dauden

militanteen artean egin beharrekoa ere. Bide berri bat elkarrekin egiteak sekulako garrantzia du, horrek ekarri beharko bailuke norabide eta apustu bat elkarrekin eta bakoitzak bere esparrutik bultzatzea. Hots, konpromiso partekatu bat erakitzea, "akordio" gisako bat.

- Izan ere, tresnen azkartzearekin batera, mugimendu abertzalean herri borroken eta herrigintzaren alorrean ere epe ertain/luzeari begirako gogoeta komun baten lantzearen beharra sumatzen dugu. Eremu horretan mugimendu abertzaleak bultzatu dituen ekimen eta egituren partetik, hainbat aldaketen "metabolizatzeko" behar kolektibo bat dagoela iduritzen zaigu. Alde batetik, fase politikoaren aldaketak berak egoera berri bat sortu du. Bestetik, bai egoera orokorrean, eta bai jendartean ikusgai ditugun joera berri batzuk logika eguneratzea eskatzen dute. Horregatik, berregokitze lan bat martxan jartzeko bideak aurkitu behar direla deritzogu.
- Indarrak metatzeko tresnen eraikuntza prozesuan zehar modu dinamikoan egokitzen eta behar bezala finkatzen asmatu beharko da, garrantzia handia izanen baitu eztabaida eta erabaki bakoitza noiz, nola eta non hartuko den argi izaitzea. Mugimendu abertzalea hedapen fase batean murgildurik dago eta baldintzak ikusirik, hedapen horrek segituko du. Gure erronka ere bada. Horregatik, askoz ere artikulazio eraginkor eta funtzionalagoa izan beharko du etorkizunean.

32. Ipar Euskal Herriko hirigunerako (zone urbaine) estrategia berezitua. Baiona Angelu eta Biarritzeko eremuan Ipar Euskal herriko populazioaren %45a bizi da. Jakin badakigu gainera kanpotik etortzen den populazioaren parte handiena kostaldeko hiri nagusietan metatzen dela, baita Baiona, Biarritz eta Angelun ere. Baionan adibidez, populazioa emendatzen ari da kanpotik datorren jendearen eraginez eta ondoko urteetan apalduko ez den jario demografikoak hainbat arazo ekar ditzake, arazo politiko tarteko, kanpotik etorritakoak frantsesak baitira gehienak, Frantses Estatuaren giro eta kultura politikoari konektatuak. Zer erranik ez ere etxebizitzaren arloan biderkatzen ari diren arazoei buruz. Ipar Baionako auzoetako populazioaren errealitate sozial gero eta gogorragoak ere ezaugarritzen du Ipar Euskal herriko hirigune nagusia. Eremu horren pisu demografikoa ikusirik, baita bere kontestua eta errealitatearen berezitasuna ere, ezkerreko abertzaleon helburuei begirako eta hirigunearen errealitateari egokitutako estrategia berezitu bat deklinatu beharko dugu ondoko urteetan

33. EH Bai berritua. Marrazten ari garen faseari loturik, tresna politiko indartsu eta eraginkor bat behar da. EH Baik 2022ko bere barne prozesu propioan zehaztu beharko badu ere, prozesu politiko-instituzionala eraginkortasunez garatzeko bere burua egokitu edo berritu behar duela deritzogu. Hein handi batean, mugimendu abertzalean prozesu horren lidergoa eramatea bere ardurarik nagusietarikoena delakoan gira. Geroz eta podere eta ordezkaritza handiagoarekin, gai izan behar baita aitzinean dauden desfioei erantzuteko.

- Horrendako, mugimendu zabal eta anitza izan beharko da, geroz eta gehiago, geroz eta biltzaileago, hots: ezkerreko abertzale guzien erreferentzia eta etxea, askotariko sentsibilitateak bere baitan bilduko dituen. Herri prozesuaren eremu klabeetan ekarpen eta proposamen politikoak egiten dituen tresna behar dugu; oinarri militante eta sozial zabal bat lurraldean hedatua izanen duena; euskal eragileekin eta baita Frantses Estatuaren menpeko nazioetakoekin interlokuzio iraunkorra garatzeko gai izanen dena.

34. Estrategia sozial-sindikal berriua. Aldaketa sozial eta ekonomikoak prozesuaren erdigunean jartzeko helburua izanik, uste dugu mugimendu abertzalean borroka sozialetan lanean ari diren sektoreen artean adostasunak eraikitzeko entsegua egin behar dela. Edozein gisaz, ezker abertzalearentzat LAB erreferentzia sindikal nagusi bilakatu beharko litzateke ezkertiar eta abertzale guzientzat. Horrendako, gaur arte ezkerreko mugimendu abertzalean borroka sozialetan ari diren sektoreen artean apustu politikoaren neurriko adostasun eta elkarlan bide berri bati ekin behar zaiola deritzogu.
35. Gazteria abertzale eta ezkertiarren tresna/dinamika berri bat. Proposatzen ari garen bidean, gazte problematikei erantzun zabala emanen dien mugimendu eta dinamika sortzea beharrezkoa da eta horren antolatzeke, ezinbestekoa da Ipar Euskal Herriko gazteria abertzale eta ezkertiarra borrokara lotzeko antolakunde berri baten eratzea, irekia, parte hartzailea, berritzailea eta borrokalaria. Apustu politikoari egokituia. Gazteriaren eta mugimendu politikoaren arteko zubi lana eginen duena. Belaunaldi berriek zer ekarpen egin dezakete fase politiko berrian? Apustu berriak zer ekarri behar die belaunaldi berriei? Galdera bikoitz horri erantzun beharko litzaioke.

2.5. Prozesuaren gidaritzaz oinarritzko proposamena

Marrastu ditugun prozesu politikoaren orientazioetan oinarriturik, eta azken urte hauetan gidaritzaz piztu izan diren eztabaidak ikusirik, ondoko urteetan elkar elikatu eta konektatzen diren hiru esparru hauek prozesu politiko norabidetzeko funtsezkoak izan daitezkeela uste dugu:

36. Herri gisako esparrua(k). Ipar Euskal Herrian bultzatu nahi dugu estatus aldaketari begira, Batera plataformaren izpiritua- ren gibelean den indar metaketaren eremu hori gidaritza ikuspegitik eraginkorragoa bilakatu daitekeela uste dugu. Aitzineko sekuentzian nolabaiteko "Herri akordioen" funtzioa bete duten adostasunak finkatu ziren: Lurralde Kolektibitatea, euskararen ofizialtasuna, Laborantza Ganbara, konponbidea. Egun, Herri ikuspegiko aliantzak eta adostasunak gauzatzen diren eremu ezberdinak indarrean dira, hala nola: maila instituzionalean (Euskal Elkargoa), konponbidean (Bake Bidea-Bakegileak) eta jendarte zibilean (IEHko Garapen Kontseilua). Bakoitzak bere funtzio propioa du, bere izaera eta helburuak bezalaxe. Geroari begira izanen duena ere. Hartara, sinergia eraginkor bat beharko dela uste dugu, subjektu ezberdin horietan Baterak ordezkatu duen esparru sozio-politikoaren baitan ondoko etaparen irismena adostea funtsezkoa den ariketa delako. Erran bezala, adostasun berri hori ahalik eta zabalean izan beharko da, transbertsalitateak sekulako garrantzia baitu. Aipatu dugun gehiengoaren artikulazio eraginkor batentzat ezinbestekoa da eta jendartearen aktibazioarendako helduleku garrantzitsua.
37. Mugimendu abertzalearen espazioa. Fase politiko berriari begira ezkerreko mugimendu zabaleko sektoreen artean gogoeta zabala egin eta estrategia orokor bati buruz adostasuna eraikitzeko gai baldin bagara, beharrezkoa izanen da sektore horien guzien artean bultzatu nahi dugun prozesu politikoaren garapena gogoetatzeko, erronka berriak partekatzeke eta berregokipenak aztertzeke espazio berri bat artikulatzea.
38. EH Bai. Ondoko urteei begira, prozesu politiko eta instituzionalaren zuzendaritza funtzioa bete behar duela deritzogu, hots, Euskal Elkargotik Lurralde Kolektibitatearenzko prozesuan dinamizazio eta aitzindaritza politiko jokatu, eta Ipar

Euskal Herriaren eskalan eta herrietakoetan garatu behar diren politika publikoen berme gisa jokatzuz. Eguneroko eztabaida eta pultsu politikoari manera eraginkorrez ere erantzungo dion tresna politikoa litzateke, tartean Euskal Herrian ez ezik, Frantses Estatuko gainerateko Herriekin harreman politiko iraunkorrak sortuz. Hots, gure apustu politikoak eskatzen duen tamaina bereko zuzendaritza gunea behar dugu. EH Bai ezkerreko abertzale guzien erreferente politikoa bilakatzeko.

- EH Bai-EH Bilduren arteko elkarlana sakontzearen garrantzia. Euskal Herriaren egituratze politikorako ibilbidean eta prozesu nazionalaren gidatzeko, ezkerreko abertzaleen arteko nazio estrategia funtsezkoa zaigu. Mugimendu abertzaleak ekarpen kualitatiboa egin behar du norabide horretan. Azterketa politikoan ez ezik, Herri bezala aitzinean ditugun erronkak elkarrekin eta bateratasunez aurre egiteko. Ondoko etapan artikulazio hori egiturazkoa eta iraunkorra izan behar delakoan gaude.

3. Ezker abertzalearen urratsak

Dokumentu honetan marrazten ari garen sekuentzia politikoaren logika abiatzeko eta ondotik, garatu ahal izateko, prozesu partekatua aitzinera eraman behar da. Gure gogoeta ekarpen politiko bat da, inizatiba bat hain zuzen, ez apalean uzteko idazlan bat eta beraz, inizatibaz jokatu behar dugu bide honetan sakondu nahi badugu. Beraz, hauek dira aurreikusten ditugun urrats nagusiak:

3.1. Ezker abertzalearen baitako lanketa

39. Sekuentzia politiko berria gure oinarri militante eta sozialarekin partekatzea joko dugu, lehenik maiatzeko biltzarrerara bitarte aurreikusia dugun militantziaren lanketarako barne prozesuaren baitan. Horrekin batera, hainbat esparrutan lanean eta arduretan diren kideekin harremanak garatuko dira apustu politikoa partekatzen hasteko eta iritziak biltzeko.

3.2. Ezker abertzaleko kidegoaren erantzukizuna

40. Gogoeta prozesu horren bukaeran finkatzen diren norabideen baitan, kidegoak apustu politikoa bere egiteko eta bultzatzeko engaiamendua funtsezkoa izanen da. Erran nahi baita, gure oinarriko jende eta esparru gehiagorekin partekatze konpromisoa, ondoko hilabeteetan mugimendu abertzalean artikulatu beharko liratekeen dinamiketan aktiboki parte hartzeko eta ekarpena egiteko.

3.3. Harreman politikoak

41. Aipatu dugunez, gogoeta hau ezkerreko mugimendu abertzalearen baitako sektore batena da. Aitzineko faseaz egin dugun bilana eta ondoko etaparako ikusten ditugun gakoak beste familia politikoetako kideekin partekatzea planteatzen dugu. Areago, analisia eta proposatzen dugun ibilbidea partekatzen bada, elkarrekin bultzatzeko bideetan sakondu beharko da.

3.4. Ezker abertzalearen inbertsio politikoak

42. Fase politiko berriaren erronka burura eramango badugu, ezinbestekoa izanen da ezker abertzaleak bere gaitasun politiko eta militantea horren mesedetara jartzea. Horregatik, eskemaren dimentsioa ikusirik, berkokatze eta inbertsio mailak ere halakoa izan beharko du. Prozesu dinamiko gisa ulerturik ere, gure indarrak ahalik eta modu eraginkorrean kokatu beharko ditugu erronka berrian.

3.5. Behin-behineko antolaketa

43. Azkenik, Sorturen eta oro har ezker abertzalearen funtzio, antolaketa eta ibilmoldearen eztabaida gogoeta honen hurrengo etapan zehaztu behar dela oroitarazi nahi dugu. Batetik, ezkerreko mugimendu abertzale osoaren eztabaidak determinatuko duelako jokalekua. Eta bestetik, Sorturen eta LABen kasuetan, kongresuak eginen direlako 2022 urtean eta epealdi horretara begira kokatu behar direlako eztabaida horiek. Edozein gisaz, maiatzeko biltzarrari begira oniritzia biltzeko asmoz, eskualdeka eginen diren bilkuretan epealdi horretarako Sorturi buruzko trantsiziozko antolaketa eredu egokitua proposatua izanen da.

TALDE DINAMIZATZAILEA

Euskal Herrian, 2021eko martxoan

